

# Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

## Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketez

MARI JOSE OLAZIREGI

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

---

---

# Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz

Some reflections on Basque literature research

---

MARI JOSE OLAZIREGI

MHLI ikerketa-taldea, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

mj.olaziregi@ehu.eus

---

JASOA: 2019/08/21 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/09/11 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/04

---

---

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen MHLI (Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan – [www.mhli.net](http://www.mhli.net)) ikerketa-taldearen (IT1047-16) eta FFI2017-84342-P (MINECO) proiektuen baitan gauzatu da.

---

---

---

#### LABURPENA

Artikulu honen helburua euskal literatura-ren ikerketa akademikoen egoeraz hausnar-keta egitea izan da. Horretarako, literatura-ren kritikak eta teoriak gurean izan duten hedapenez labur aritu ondoren, ikerlerro desberdinen nolabaiteko diagnostikoa egin dugu. Bestek beste, itzulpen-ikasketak, literatura-ren historiografia, kanonari buruzko ikerketak, memoria-ikasketak eta genero-ikerketek argitara emandakoa izan dut hizpide, baita irakurritako doktore-tesien ekarpena ere. Amaitzeko, etorkizuneko zenbait erronka iradoki ditut.

#### ABSTRACT

This article analyzes the state of Basque Literary Studies. With that aim in mind, after commenting on the impact of Literary Theory and Criticism in the Basque academic context, I have made a diagnosis of the different fields of research therein. Among others, we have reflected on the studies that have been carried out and the dissertations that have been defended in fields such as Translation Studies, the History of Literature, Literary Canon Studies, Gender Studies and Memory Studies. To conclude, I have pointed out some challenges that Basque Literary Studies will have to face in the future.

**Gako-hitzak:** euskal literatura; literatura-ren teoria; literatur kritika.

**Keywords:** Basque Literature; Literary Theory; Literary Criticism.

## 1. Hasteko. Zenbait hitz aurkezpen gisara

*Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren 50. urteurrenaren aitzakian prestatutako argitalpen honetarako euskal literatur ikerketa akademikoen egoerari buruzko hausnarke-ta egingo nuela iradoki nien arduradunei. Arrazoiak? Ugariak, noski, baina batez ere, arloaren diagnostikoa egiteak eta etorkizuneko erronkez jarduteak berekin lekarzkeen onurek animatu ninduten. Ondoren datozenek, beraz, ez dute euskal literatura-ikasketa akademikoen sorrera eta diakroniaren narrazio zehatzik eskainiko, ezta ikasketa horien oinarrian dagoen bizitza literarioarena ere. Zertzelada orokorrak ematen ahaleginduko naiz, eta joan den mendeko 60-70eko hamarkadetan *kritika zientifiko* generitzon haren bilakaeraren ondorioak eskaintzen. *Zientifiko* esan dut? Garai batean kritikaren beraren *statusa* defendatzeko erabiltzen zen terminoa izanda ere, bistakoa da azken hamarkadetan, bereziki jakintzaren arkeologiaz Foucault eta bestek argitara emandako lanen ostean, erabat susmagarri suertatzen den hitzaren aurrean gaudela.

Edonola ere, zientifikotasunaz ari garelarik, esan dezadan horixe izan zuela hizpide «Euskal Literatura ikerketak XXI. mendean: diagnosia eta erronkak» mintegiaren aurrekaritzat hartuko dudan Euskal Kritikagintzari buruzko I. Jardunaldietan Jesús María Lasagabasterrek (1931-2013) aurkeztutakoak. Aurelia Arkotxak eta biok antolatu genituen euskal kritikari buruzko topaketa haiek 2000. urtean, EHUren Letren Fakultatean, eta bi urte geroago eman ziren argitara han esandakoak *Oihenart* aldizkariaren 19. zenbakian (Olaziregi & Arkotxa, 2002). Euskal literatura-ikerketen bilakaeraz ez ezik, hainbat generotan, hala nola narratiba, saiakera, poesia, antzerkia edo haur- eta gazte-literaturan ikerketok izandako bilakaera akademikoaz ere aritu ginen bertan. Argitalpenari buruzko erreseina egin zuen Andolin Eguzkitzak (2003, 719. or.) esan zuen bezala, «interesez beteriko bilduma, ikuspegi orokorrak argi uzten dituen eta era berean maila zehatzagoetara jartzeko beldurrik ez duena». Horra mintegiaren ekarpena.

Baina, noan zientifikotasunaren kontura. Lasagabasterrek, egin ohi zuen bezala, klase magistrala eman zigun literaturaren ikerketek bere gain hartzen dituzten Kritika, Teoria eta Historia arloez. Lehenengo pertsonan mintzatu zitzaigun, noski, bera izan baita, ondoko puntuan azalduko dugun bezala, euskal literaturaren ikerketa akademikoaren instituzionalizazioaren erreferentzia funtsezkoa. Bere jardunaren ostean, besteak beste, unibertsitate-mailan literatur generoei buruz egindako ikerketak, bereziki, doktores-tesiak izan genituen hizpide eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren 50. urteurrena ospatzeko egindako biltzarrean «Euskal Literatura ikerketak XXI. mendean: diagnosia

eta erronkak» mintegian partaide izandako Jon Casenave, esaterako, saiakerari buruz aritu zitzaigun, Jean Etxepareren *Beribilez* liburuaz sakon hitz eginez.

Kontuok guztiok aipatuz hasi nahi izan dut, gaurkoak aurrekari gutxi dituela argudiatzeko. Izan ere, Euskal Ikasketetan ezerk deitzen badu atentziora, gure arteko komunikazio eta eztabaidak sustatzeko daukagun foro-urritasunak deitzen du. Beste hitz batzuekin esateko, iruditzen zait bilera hauek izugarri aberasgarri direla, ez bakarrik elkarren berri izatea lortzen dugulako, baita arloaren argiez eta itzalez jabetzen garelako ere. Nazioartean errazago ikusten dira eta justifikagarriagoak kontsideratzen dira ikerketa-arlo bati buruzko biltzar edo bilera zientifikoak, eta hortxe dauzkagu, esaterako, hispanistek antolatzen dituzten biltzar eta enkontruak hainbat estatutan. Hortxe doakizue, beraz, nire lehenengo iradokizuna: antola ditzagun mota honetako jarduerak maiztasunez, egin dezagun euskal literaturari buruzko tesi eta tesinen datu-basea, Espainiako sisteman ezaguna den Teseo datu-basea ez baitago osorik, hegoaldeko euskal unibertsitateetan irakurtzen diren tesiak bakarrik jasotzen baititu, eta ez guztiak. Identifika ditzagun ahulgune eta indarguneak.

Esan genezake azken hogeitau urteotako euskal literatura-ikerketek 2000. urtean begiz jota geneuzkan zenbait hutsune bete dituztela. Aurreko lerroetan aipatutako jardunaldietan, esaterako, hainbat kontuz hausnartu ostean (euskal literatur sistemaz, 80ko hamarkadan egon ziren kritika-motei buruzko eztabaidez, ikerketa literarioen bilakaera diakronikoaz), dekalogo batekin bukatu nuen eta hurrengo hamarkadetan jorratu beharreko hainbat arlo seinatu nituen iradokizun bezala. Besteren artean, euskal literaturaren historiografia berri beharra azpimarratu nuen, egoera tamalgarrienean baitzegoen ikerketa-arlo hori, hainbat artikuluk erakusten zuten bezala (Lasagabaster, 1983; Olaziregi, 1997). Horrekin batera, diziplinarteko metodologiak aplikatzearen beharraz ere egin nuen gogoeta, beste onuren artean, ordura arteko testuzentrismoa gainditu eta Harrera Estetika, Ikasketa kulturalak edo Genero Ikasketak bezalako norabideen ekarpenak geureganatu beharra azpimarratuz. Aurreko hamarkadetako tesi eta tesina askotan literatur lana gizartetik erabat isolatutako jarduera gisara aurkezten zela salatu genuen. Esandakoaz bat, *sistema periferiko* deritzenen gaineko ikerketak sustatzeak leharzkeen onurak nabarmendu nituen (euskal literatura itzulia, haur- eta gazte-literatura, emakumeek idatzitako literatura...) eta ordura arte literatura garaikideari buruzko ikerketen inguruan nagusi izandako topikoa salatu: distantzia kronologiko ezak/urritasunak literatura-ikerketetan eragiten omen zituen mugak. FLV, 50 urte: *Metodo eta joera berriak (euskal) hizkuntzalaritzan kongresuko literaturari buruzko mintegian izen eman duten kolegen ekarpenek irudikatzen duten errealitateak argi erakusten du, esaterako, Itzulpen Ikasketak nabarmen igo direla XXI. mendean, lehenago aipatzen genuen Teseo datu-basean, kasu, 9 doktore-tesi jasotzen baitira XXI. mendean. Horrekin batera, Genero Ikasketek izandako gorakada aipatuko genuke, ondorengo puntuetan nabarmenduko ditugun doktorego-tesiei esker, besteak beste. Esandakoaz gain, 2000. urtean aurreikusten ez genituen arloen gorakada, hala nola memoria-ikasketena, nabaria izan da. Eta, azkenik, *garaikidetasunaren* aldeko aldarriak gurean ekarri duen muturreko erreakzioa nabarmendu nahiko genuke: 1980-1990eko hamarkadetako doktore-tesietan autore klasikoak (Axular, Etxeberri Sarakoa...) eta Euskal Pizkundekoak (Orixe, Lauaxeta, Lizardi) baziren aztertuenak, XXI. men-*

deko doktore-tesietan, berriz, azken bost-sei hamarkadetako obren azterketak hartu du protagonismoa, horrek, Jon Casenavek (2012) salatu bezala, ekarri dituen ondorio historiografikoekin. Berdintsu jarraitzen dute ahozko literaturari buruzko ikerketa akademikoek: urriak dira, eta gainera, unibertsitate-programetan ez dute beharko luketen pisurik. Azkenik, benetan larria den egoera bat: literaturaren didaktikarena, arloak ez baitu ikerlari gehiegi erakarri, paradoxikoki, azken urteotan doktore-gradua lortu duten ikerlari gehienak irakasle-eskoletako lanpostuetan badabilta ere.

Ondoko lerroetan, beraz, euskal literatura-ikerketek azken urteotan landu dituzten ildo nagusi batzuk izango ditut laburki hizpide. Datu gehienak, gainera, Lourdes Otaegirekin batera berriki argitara emandako artikulutik atera ditut (Olaziregi & Otaegi, 2019a), neuri egokitu baitzitzaidan, hain justu, euskal literaturaren instituzionalizazioari eta globalizazioari buruzko emaitzen berri ematea bertan.

## 2. Euskal literatur ikasketen instituzionalizazioa

Euskal literatur kritikaren bilakaera modernoari erreferentzia egiten diogunean, joan den mendeko 60-70eko hamarkadetako aldaketa handiak aipatuz hasi ohi gara. Ordu-rako, Euskal Ikasketen katedra batzuk, hala nola Bordeaux-Montaignekoa (1948-) eta Salamancakoa (1952), martxan zeuden. Geroago, 1963an, sortuko zen Nafarroako Unibertsitatekoa (1963). Katedra horietan lanean aritutako Koldo Mitxelena (1915-1987) (UPV/EHU), edo Jean Haritschelhar (1923-2013) (U. Bordeaux Montaigne) bihurtuko dira, Deustuko Unibertsitateko Jesús María Lasagabasterrekin batera, euskal literatura ikerketa akademikoen eragile funtsezkoak hurrengo hamarkadetan. Lehenengoaren eskutik etorri zen, ez bakarrik Euskal Filologiako ikasketen diseinu eta ezartzea 1982an EHUn, baita *Historia de la literatura vasca* (Mitxelena, 1960) ospetsua ere, euskal literaturaren historiografian indarrean egon den eredu filologikoa finkatu zuen liburua. Aipatu hiru pertsonaiok, gehi euskal unibertsitate-sareko departamentuetan irakasle aritu ziren adituak, hala nola, Patxi Altuna, Juan Mari Lekuona, Gotzon Garate edo Ana Toledo, Deustuko Unibertsitatean; Jon Juaristi, Jon Kortazar edo Karlos Otegi, Euskal Herriko Unibertsitatean; Aurelie Arcocha-Scarcia edo Jon Casenave, Université Michel de Montaigne; eta Txomin Peillen eta Charles Videgain, Université de Pau et des Pays de l'Adourren, ikerketa akademikoen eragile bihurtu ziren. Berdin generrake 1999an sortutako Baionako IKER laborategiak izandako eraginaz, edo Nafarroako Unibertsitatean 1970eko hamarkadan Ana Etxaidek sustatutako ibilbide akademikoaz; gerora, 1994an, Euskal Ikasketako Diploma osatuko zuten hautazko irakasgaiak eskainiz.

Edonola ere, literaturaren irakaskuntzaz nahiz teoria eta kritikaz ari garenean, Jesús María Lasagabaster irakaslearen lana aitortuz hasi beharko genuke, bera izan baita, du-darik gabe, euskal literaturaren ikerketa akademikoen sustatzaile nagusia. 1967an joan zen Parisera École Pratique des Hautes Études ezagunean ikastera eta L. Goldmann, R. Barthes edo A. Greimas bezalako kritikari ezagunen ikasle bihurtu zen (Lasagabaster, 2002, 115. or.). Han ikasi zituen *Nouvelle Critique*aren oinarriak aplikatuko zituen bere itzuleran Deustuko Unibertsitateko Donostiako egoitzan emango zituen eskole-

tan. Lasagabasterren irakaskuntza-programak hurrengo urteetan euskal literaturaren ikerketetara etengabe aplikatuko diren hurbilpen metodologikoak jasotzen zituela esan genezake. Hortxe zeuden, esaterako, Errusiar Formalismoa, Estrukturalismo Txekiarra, Semiologia, Soziokritika, Psikokritika eta Kritika Tematikoa. 1981ekoa da Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologiako lehenengo promozioa; 1980ko abuztukoak, berriz, Euskal Hizkuntza eta Literaturako lehenengo 10 katedradunen izendapenak irakaskuntza ertaintetan. Dakusagunez, ikerketaren profila ez ezik, ikertzaileena ere aldatuz joan zen urte haietan, literatur kritika modernoan berariazko formazioa jasotako euskal ikerlariak unibertsitatean ikasitako paradigma nahiz hurbilpen metodologikoak euskal literaturara aplikatzen hasi baitziren.

Bestelakoa zen Jean Haritschelharren profila, Université Bordeaux Montaignen egin zituen ikerketa- eta irakaskuntza-urteez gain, pertsonaia publikoa izan baitzen Haritschelhar, euskal kulturgintzarekin erabat konprometitua. Baionako Euskal Museoa zuzendu zuen (1962-1986), Euskaltzaindiko lehendakariordea (1966-1988), lehenengo, eta lehendakaria (1989-2006), ondoren, izan zen eta hainbat unibertsitatetako *honoris causa* doktore. Berak zuzendu zuen, Juan Mari Lekuonaren heriotzaren ostean, Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordea, LIB, 2013ra arte. Pierre Topet Etxahuni buruz egin zuen doktore-tesia (Haritschelhar, 1969) euskal literatura-ikerketan egindako lehenengoa dukegu.

Jesús María Lasagabasterrek, berriz, Ignacio Aldekoari buruzko bere doktore-tesiaren ostean (Lasagabaster, 1978), Pío Baroja, Gabriel Celaya, Ramon Saizarbitoria, Bernardo Atxaga edo Joxe Austin Arrieta bezalako idazleen lanak aztertu zituen batik bat (Lasagabaster, 2000). Horiekin batera, euskal literaturaren historiografian mugari izan ziren ikerlanak kaleratzen hasi zen. Hortxe daude, diogunaren adibide gisara, 1978ko «Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak» ezaguna (Lasagabaster, 1981), euskal eleberriaren historiografian erreferentziazko bihurtu zen periodizazioa ekarri zuena. Lasagabasterrek euskal nobelaren bilakaera azaltzeko bereizi zituen bialdiak, batetik, eleberri kostunbristari dagokiona (1898-1957) eta, bestetik, eleberri modernoari dagokiona (1957-), azken hau bi azpiataletan bereizita, eleberri existentsialista eta moderno, ondoren etorri ziren azterketetarako funtsezko bihurtu ziren. Gaurtik begiratuta, bistakoa da zenbait egileren, hala nola, Ramon Saizarbitoriaren, kanonizazio-prozesua bultzatu zutela euskal eleberriari buruzko lanok eta baita, nola ez, garaian argitara eman ziren zenbait ikerlanek ere, Ibon Sarasolaren *Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza* (1975a) izenekoak, kasu. Horien ondoren, tesina ezagunak ere argitaratu ziren, batzuk euskarara itzuliak, hala nola Karlos Otegiren (1976) *Pertsonaia euskal nobelagintzan* edo Patxi Altunak (1978) paratutako *Koldo Mitxelaren idazlan hautatuak*. Interesgarria da, halaber, 1970eko hamarkadan kaleratu ziren hainbat liburutan testuen azterketari edo analisi kritikoari ematen zitzaien garrantzia. Horren lekuko genituzke, esaterako, Gero eta Etor argitaletxeen eskutik etorri ziren *Testuak aztertzen*, Jose Antonio Mujikarena (1978), eta *Euskal nobelaren azterketa* eta *Euskal poesia kulturoaren bilduma (1880-1963)*, Joan Amenabarrenak (1982, 1983). Literatur kritika moderno esparru berria zen gurean eta lan horiek ikusgarri bihurtzen lagundu zutelakoan nago.

### 3. Autonomizazioa, modernitate-ostea eta globalizazioa

Behin baino gehiagotan azpimarratu izan dugu 1950eko hamarkadan hasitako euskal literaturaren autonomizazio-prozesuak bere gailurra erdietsi zuela 1980ko hamarkadan, nagusiki Hegoaldean, sortu ziren baldintza sozio-historiko berriekin. Pierre Bourdieuk bere autonomizazio-prozesuetan zehaztutako aldagaiak orduan bete zirela esan genezake. Batetik, irakurleak ugaritzea, euskararen ofizialtasunak derrigorrezko hezkuntzan ezarri zituen euskarazko ereduekin. Bestetik, euskal egileak profesionalizatzeko eta autonomia ekonomikorako sortu ziren aukerak zabaltzearekin. Azkenik, kontsagrazio-agentzien hedatzea nabarmendu beharko genuke, hau da, unibertsitateek, hezkuntza-sistemak eta merkatuak osatzen duten egitura sendotzea. Ordukoak ditugu euskal idazleen, itzultzaileen eta editoreen elkarteak; ordukoak, halaber, inkestek esaten dutenez, narratibaren hegemonia markatuko zuten sari, lehiaketa eta bestelakoak. Eta autonomizatze-prozesuan funtsezkoa izango da, Miren Ibarluzeak (2017) bere tesian frogatu bezala, itzulpengintzak euskal literaturari emango dion bermea, idazleen profesionalizazioa ahalbidetuko baitu, dela autoitzulpenei esker lortutako ordainsariengatik, dela beste hizkuntzetako itzulpeni esker erdiesten dituzten egile eskubideengatik. Esandakoaz gain, itzulpengintzaren garapen eta sendotzeak onura gehiago ere ekarri zuen gurera, jakina baita, bereziki Even Zoharren lanen ostean (Even Zohar, 1999), literatura itzuliak hainbat kokagune (zentrala/periferikoa) izan ditzakeela historian zehar literatur sistema batean, besteren artean, ezagunak ez diren poetikak finkatzea eta hedatzea bultzatuz.

Itzulpengintza, halaber, euskal haur- eta gazte-literatura modernoaren sorrerari eta garapenari hertsiki dago lotuta, ez bakarrik gurean, baita beste literatura iberiarretan ere (Domínguez, 2008). 1980ko hamarkadan hasi zen euskal literatura modu nabarmenean iberiar kontestuko sistema interliterarioa bere ekarpenak egiten, haur- eta gazte-literaturan penintsulako hizkuntzetan argitaratu ziren liburuekin. Mariasun Landaren *Txan fantasma* genuke adibide interesgarrienetakoa, euskal haur- eta gazte-literatura modernoaren hastapena bultzatu zuen testu hau euskaraz, gaztelaniaz eta katalanez argitaratu baitzen 1984an. Geroxeagokoak ditugu euskal literaturaren berri eman nahi duten antologia eleaniztunak. Batzuk aipatzearren, gogora ditzagun Lasagabasterrek (1986) apailatutako *Antología de la narrativa contemporánea*, Julia Otxoaren (1990) *Emakume Olerkariak. Poetas Vascas*, Iñaki Aldekoaren (1991) *Antología de la poesía vasca*, Litoral aldizkariaren 205-206 zenbakia izan zen *Poesía vasca contemporánea* (Askoren artean, 1995) edo *Oraiko olerki sorta-bat. Anthologie poésie basque contemporaine* (Askoren artean, 1988).

Autonomizazio-prozesua hizpide dugunez, esan dezagun berau izan dela azken urteotako euskal literatur kritika arduratu duen alderdietako bat. Eta ardura horrek, batez ere, Bernardo Atxagaren lana eta beronek euskal literatur sisteman izan duen rola izan ditu aztergai, ez literaturaren soziologiak, tartean nireak, etengabe azpimarratu duen ibilbide profesionalarengatik bakarrik, *Panpina Ustela* edo *Pott* literaturaz defendatutako iritziengatik baizik. Horixe da, hain zuzen, literatura autonomoaren heteronomizazioaz Ur Apategik (1998) sinatutakoak aztergai duena edo Beñat Sasolaren (2015, 2017) ikerlanek aztergai dutena. Horietan, eta Miren Billelabeitiaren (2016) lanean, autonomiaz/



konpromisoaz sortutako polemikez haratago, jarrera eta irakurketa ideologiko-politikoek ere euskarazko sorkuntzan izandako eragina aztertu nahi izan da. Berdin generake euskal literaturaren globalizazioa edo internazionalizazioa aitzakia hartuta sortu diren eztabaida kritikoez. Batzuentzat, Joseba Gabilondorentzat bereziki (Gabilondo, 2013, 250. or.), *Obabakoaken* bitartez Euskal Herria «beste exotiko subalterno» gisara aurkeztearen ondorio da arrakasta hori; besteentzat, Gorka Mercero (2017, 35-54. or.) argudiatu duen bezala, ez da bidezkoa horrelakorik baieztatzea, *Obabakoaken* mundu-ikuskerara erabat antiesentzialista baita. Bestalde, asteasuarraren nazioarteratze-estrategia, hau da, espainiar literatur sistema baliatu izana kritikatzeko, «nazio-ikuskerara zurrun bezain itogarri bati doa lotuta» Merceroren (2017, 53. or.) aburuz. Iritziak iritzi, deigarria da nazioarteratze-estrategiak iruzkintzen direnean zein datu gutxi eskaintzen den argudioak justifikatzeko. Esate baterako, zein kasu gutxi egiten zaion euskal idazleek azken hamarkadetan Madrilgo Sari Nazionalaren aurrean izan duten jarrerari, salbuespen bat edo beste kenduta, urtero-urtero euren lanak sarira aurkez zitezten baimenduz. Euskal Kulturako beste sortzaileei eskatzen ez zaien *ustezko* leialtasuna eskatzen zaie euskaraz idazten duten idazleei, baina hori bakarrik ez, itzulpen-fluxuen oinarrian legokeen estrategia politiko-kulturala inongo daturik gabe frogatzen da. Eztabaidok *literatura txikiak*, Kafkaren terminoa erabiliz, duten politizazio handia erakusten dute, baina hori bakarrik ez; gurean beharrezkoak diren ikerketa enpirikoen eskasia ere bai. Ikerlari batek oroitarazi zidan bezala, Kirmen Uriberen lanaren itzulpenaren logika ez da Atxagaren itzulpen logika baino abertzaleagoa, besteak beste, bien arteko lan sari-tuen artean, *Obabakoak* (Atxaga, 1988) eta *Bilbao-New York-Bilbao* (Uribe, 2008), 20 urte pasa direlako eta euskaratik zuzenean itzul dezaketen itzultzaileak ugarituz joan direlako (Nami Kaneko itzultzaile japoniar saritua, kasu).

Ibon Egañak (2013) bere tesian dioskunez, *instituzionalizazio-homologazio-normalizazio* hirukoteak baldintzatu du azken urteotako logika editoriala eta egunkarietako kritika (Northorp Fryek *kritika publikoa* deritzona). Esan genezake euskal literaturaren nazioarteratzeari buruzko iritzi kontrajarriek ere literaturaren homologazioaren inguruko eztabaida eragin dutela. Ibon Sarasolak *Sinn-Fein* *sindrome* deitu zuena Joan Mari Torrealdaik *kanpoeder* *sindrome* izendatu zuen (Olaziregi, 2010), eta Ramon Saizarbitoriak (1999) euskal literatur merkatuaren tamaina txikiak esperimintatzeko eta morrontza komertzialak saihesteko lituzkeen abantailez gogoeta egin zuen. Euskal argitaletxe asko XXI. mendearen lehen urteetan gaztelaniaz ere argitaratzen hastearekin batera, gaztelaniaranzko itzulpenen gorakada gertatu zela esan genezake. Euskal literatur sistemak gaztelaniazko sistemarekiko harreman asimetrikoak baditu (Santana, 2012), ikertzeko dago euskal editorialen estrategiak, hau da, ustez euskal herritar ez euskaldunengana iristeko helburuz gaztelaniarako itzulpen sistematikoen sustapenak zein ondorio izan dituen (harreraren edo salmentaren aldetik). Esandakoaz gain, interesgarria litzateke aztertzea gaztelaniarako itzulpen-prozesu sistematikoek euskal sortzaileengan eragiten dituzten hausnarketak eta ezinegonak, duela gutxi Harkaitz Canok azpimarratutako subordinazio-sentimenduak barne (ik. Bereziartua, 2019).

Edonola ere, bistakoa da azken urteotan euskal literatura beste merkatuetara iristeko egitasmo garrantzitsuak bultzatu direla. Helburu horrekin sortu dira, esate baterako,

hainbat liburu-sail gure mugetatik kanpo. Hortxe ditugu, batzuk aipatzearen, AEBetako Renon egoitza duen Center for Basque Studiesen *Basque Literature Series* (2004-) edo Madrilgo Centro de Lingüística Aplicada Palas Atenea (2003-) delakoan kaleratu diren gaztelaniarako itzulpenak. Horiekin batera, euskal liburuen itzulpenak maiztasunez argitaratu dituzten Herbereetako Zirimiri.press eta Italiako Gran Via Edizioni, jada desagertua, edo herrialde bereko LIBE egitasmoa gogoratu beharko genituzke, italiarako itzulpenak, gehienak Roberta Gozzik eginak, *online* zintzilikatzen dituena. XXI. mendeko argitalpenok nahiz aldizkari edo bilduma entzutetsuetan kaleratzen joan diren euskal idazleei buruzko monografikoek (ik. *Transcript* aldizkariaren 20. alea, 2003an; *Words Without Borders*en argitaratu diren itzulpenak...) edo *Best European Fiction* antologietan urtero txertatu diren euskal testuek, gehienak Etxepare Euskal Institutuak sustatuek, inoizko kanpo-proiektiorik handiena eskaini diote euskal literaturari. Esango nuke euskal literaturaren presentzia nazioarteko antologietan nehoizko altuena dela, baina hori bakarrik ez, sistema interliterario iberiarrean bakana ere bada. Finean, azken urteotan gure literatura ulertu, kokatu eta ikertzeko ikuspuntu berriak eragin ditu merkatu arteko kokapen honek, eta literatura *txiki*, *txikiagotu*, *periferiko*... eta bestelako kontzeptuak erabili izan ditugu nazioarteko biltzar eta aurkezpenetan kokapen horretaz jarduteko.

Esandakoaz gain, bada alderdi bat gurean gehiegi aztertu gabekoa oraindik; hots, testuinguru eleanitzak euskal sortzaileengan izan duen eragina. Egia da itzulpen-ikasketetan hainbat doktore-tesi egin direla, eta zeharka bederen hizkuntzen arteko harremanez jardun dute. Aiora Jakaren 2011ko doktore-tesia izan zen (Jaka, 2013), kasu, EHuko Itzulpengintza eta Interpretazioa gradu-ikasketen ondorioz irakurri zen lehenengoa, eta Sarrionandiaren obran itzulpengintzak, jarduera sortzaile gisara ulertua, duen garrantzia aztertu zuen. Itzulpengintzaz dihardute, halaber, Garazi Arrularen (2018) autoitzulpenari buruzko tesiak eta Miren Ibarluzearenak (2017), itzulpen-praktikak eta itzulpenaren errepresentazioak aztertu zituenak. Alabaina, testuinguru eleanitzaren eragin eta aurpegiak askoz aberatsagoak dira, eta azken urteotan hainbat biltzarretan (ik. Olaziregi, 2009) edo ikastarotan hizpide izan bada ere (ik., esaterako, 2017ko irailean Universität Konstanzek eta Baionako IKERek antolatu zuten udako ikastaroa: «Plurilinguisme en Europe occidentale : La France et l'Espagne»), ikerketa akademiko gehiago merezi duen alderdia dela esango genuke. Zentzu horretan, Aurelie Arcocha-Scarciak (2018) berriki Juan Mari Lekuonaren sorkuntza-prozesu eleanitzaz kaleratutako ikerketa salbuespen bakarrenetakoa genuke.

#### 4. Kanonari buruzko eztabaidak

Literatur kanonari buruzko eztabaida akademikoa genuke, segur aski, joan den mendearen azken hamarkadan eztanda egin zuen gertakari azpimarragarrienetako bat. AEBetako unibertsitateetan *arraza zuriko gizonetzko* osatutako Mendebaldeko kano-naren aurka altxatu zirenek, literatur lan *on* edo *gogoangarrienen* zerrendetan ustez literatur jardueratik kanpo dauden aldagaiek (boterea, ideologia) zuten pisua salatu zuten. Geurean ere, 1990eko hamarkadan iritsi zen euskal lanen analisi kritikora *kanon*

kontzeptuaren aplikazioa (Gabilondo, 1993; Olaziregi, 1997...). Gerora, XXI. mendean bada, Hasier Etxeberriaren (2002) eta Ana Urkizaren (2006) liburu ezagunek eztabaida zabaldu, sozializatu, egin zutela esan genezake, liburu horietan egiten zen hautuak (5 idazle, guztiak gizonezkoak, Etxeberriarenean; 8 idazle, guztiak emakumezkoak, Urkizarenean), garaiko kritika publikoa ere zipriztindu baitzuen. Azken hamarkadetan kanonari buruzko analisi kritikoek ere izan dute beren lekua. Iratxe Retolazak (2007) lehenengo eta Lourdes Otaegik (2013) gero, euskal poesia garaikidearen antologiek izan duten eragin kanoniko-historiografikoa izan dute hizpide. Lan horien irakurketatik erraza da euskal poesia garaikidearen kanona finkatzen lagundu duten argitalpenak begiz jotzea, antologia horietan poetika modernoaren aldeko apustua atzematen baita apailatzaileen artean. Juan San Martinen *Uhin berri* (1969, SGEP), eta Ibon Sarasolaren (1973) *Gerraondoko euskal poesiaren antologia 1945-1964* genituzke, esaterako, *modernotasun* kontzeptu baten alde egin zuten antologia batzuk. Urte batzuk geroago argitaratutakoek, hala nola, Jon Kortazarrek (1984) *Reducciónsen* 22. zenbakian katalanez argitaratutako antologiak, lehenengo, eta geroago gaztelaniaz argitara emandako hirurek (Kortazar, 1997, 2000b, 2006) edo Iñaki Aldekoak 1991n Visorren argitaratutakoak (Aldekoa, 1991) euskal poesia modernoaren kanona finkatu zuten. Otaegik (2013, 527. or.) dioen bezala, antologia horien bitartez eta hiru adi-tuek (Sarasola, Kortazar, Aldekoa) argitaratu zituzten euskal literaturaren historiai esker, *Modernitate* kontzeptu bat, Aldekoak Jon Miranderen poesian dakusana, gailendu zen. Errealitateaz egiten dugun behaketa subjektiboan eta kritikoa arnas hartzen duen *ni* poetikoa da *modernitate* kontzeptu honen giltzarria. Ondorengo antologiek, hala nola Kortazarrek (2006) eta Olaziregik (2007) argitara emandakoek, *moderno-posmoderno* dinamikaren baitan kokatu zuten euskal poesia garaikidearen kanona. Rikardo Arregi, Miren Agur Meabe eta Uribe bezalako egileez gain, Cano, Atxaga eta Sarrionandiaren poemak dira, preseski, kanon garaikidearen zutabeak.

Kanonaz ari garela, lehenengo euskal nobela modernoaren auziak eragin dituen eztabaidak gogoratu beharko genituzke. Ibon Sarasolak 1975ean *Egunero hasten delako* (Saizarbitoria, 1969) kontsideratu bazuen lehenengo euskal nobela modernoa (Sarasola, 1975b), eta geroxeago, 1979an, Lasagabasterrek *Leturiaren* eta *Eguneroren* artean pasatako 12 urteak azpimarratu eta nobelaren oinarrian leudekeen *modernitate* kontzeptu diferenteak seinlatu (Lasagabaster, 1979, 7. or.), azken urteotan *modernitate* kontzeptuaren polisemiatik abiatu eta bi eleberrien oinarrian leudekeen poetika moderno desberdinetan jarri da arreta (Olaziregi, 2002). Edonola ere, egon dira argitalpenak, hala nola Ur Apalategirena (2015), *Eguneroren* modernotasuna kritikoki arrazoitu nahi izan dutenak. Bistakoa da *ongi zahartu* den eleberri baten aurrean gaudena, *Eguneroren* 50. urteurrenaren aitzakian 2019an antolatu diren ekitaldietan ikusi den bezala edo 2007an argitara eman zen eleberriaren edizio eguneratuak erakutsi bezala. Mikel Ayerbek (2016; ik., halaber, liburu honetan duen atala) xehetasunez aztertu du nobelaren berridazketa-prozesua bere doktore-tesiaren 3. atalean, Saizarbitoriak gehitzen/aldatzen/osatzen/ezabatzen dituen pertsonaia, erreferentzia, pasarte eta bestelakoek testuaren edukari ez ezik, egiturari eta, bereziki, bi plano narratiboen arteko loturari erantzen dioten interpretazioa nabarmenduz.

Esandakoaz gain, azken urteotan euskal eleberriarren historiografian periodizazioaren aferak eragin dituen eztabaidak nabarmendu nahiko nituzke. Kortazarrek (2000a) eta Aldekoak (2004), esaterako, hamarkadako irizpide kronologikoa badarabilte euren historietan, Olaziregik (2002, 2012) moderno/posmoderno dikotomiaren alde egin du, eta Retolazak, berriz, *mimesi* kontzeptua baliatzen du lehenengo hubilpen batean (Retolaza & Kortazar, 2007) gerora, 2016an Egañarekin batera argitara emandako lanean (Retolaza & Egaña, 2016), irizpide tematiko-formalak lehenetsiz, Olaziregik 2012an bezala. Lehenago aipatu dugun Merceroren (2017) analisia, posmodernitatea eleberrien mundu-ikuskeratik abiatzen duena, genuke euskal eleberriarren bilakaera azaltzeko argitara eman den azken azterketa kritiko sendoa. Esan dezadan, halaber, Posmodernitatearen inguruko hausnarketak hainbat ikerketa eragin dituela azken urteotan, kontzeptuaren beraren oinarrian dagoen polisemiaren eta eztabaidaren lekuko (Kortazar, 2003; Gabilondo, Aldekoa, Mercero & Apaolaza, 2008; Esparza, 2017). Argitara emandako lan horietan, P. Zima, F. Jameson, G. Vattimo, J. Braudrillard, U. Eco, L. Hutcheon eta besteren teoriak erabili dira gure literatura azaltzeko.

## 5. Euskal Literaturaren Historiografiarekin bueltaka

